



Tolosako 750 ahotsek aurkeztuko dute himnoa

KONTZERTUA ▶ 'Tolosa kantuan' emanaldia eskainiko dute bihar 22:30ean, Euskal Herria plazan

ABESLARIAK ▶ Ainhoa Arteta sopranoak, eta Gorka Knörr eta Urko bakarlariak ariko dira ▶ 2

ASTEASU ▶

Berritasun ugarirekin, Azoka Eguna, etzi

Perretxiku Lehiaketa, besteak beste ▶ 4

«Gazteen arteko harremana zabaltzeko» herri kirolen saioa

IBARRA ▶ Nura Gizarte elkarteak bultzatuta, «elkarbizitza arintzea» helburu duten herri kirol jokoak antolatu zituzten, atzo, kale hezitzaileen eskutik, Belabieta kiroldegian ▶ 5



TOLOSA ▶

Ekitaldi gehiago asteburuan, urteurrena dela eta

Kepa Junkera eta Berri Txarrak izango dira gaurkoan ▶ 4

LEITZA ▶

Leitzako II. Pilota Txapelketako finalerdiak jokoan

Gaur, 19:30ean hasita, Amazabal pilotalekuan ▶ 7

Gure gomendioa



Kaskasak iruzitu beretila
Bernat Beñe



Zazpi urteak
Leonor Micólaneta Andueza



Memorias de una joven doctora
Nerea U-Gandía



En el brinco de Schopenhauer
Yvonne Roca



www.ekar.com

ekar^m

ekar ezagutzen dugulako



KULTURA ▶

Tolosako ereserkia aurkeztuko dute 750 ahotsek, bihar

Ainhoa Arteta sopranoak eta Orfeoia interpretatuko dituzte, besteak beste, biharko emanaldiko kantuek



Atzoko prentsaurrekoan: Linazasoro, Ruiz de Alegria, Ugarte, Telleria, Bildarratz, Arteta eta Zabala. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Tolosako Orfeoia, Tolosako Fundazioaren 750. urteurrena dela eta, bihar, 22:30ean, *Tolosa Kantuan* kontzertua aurkeztuko du, Euskal Herria plazan. Emanaldi horretan Tolosako Orfeoia Iruñeako Concerto orkestrak lagunduko dio, Ignacio Ruiz de Alegriaren gidaritzapean. Orfeoiarekin batera, Ainhoa Arteta soprano handiak, Gorka Knörr eta Urko bakarlariek ere hartuko dute parte. Aurkezle lanetan berriz, Edurne Ormazabal eta Manex Urruzola ariko dira.

Ekitaldi garrantzitsu hau aurkezteko izan ziren atzo Donostian, Karlos Linazasoro idazlea, Ignacio Ruiz de Alegria Tolosako Orfeoiko Zuzendaria, Enrike Ugarte musikagilea, Mikel Telleria Tolosako Or-

feoiko Lehendakaria, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Ainhoa Arteta sopranoa eta Peio Zabala idazlea.

Biharko ekitaldian, gainera, Tolosako Fundazioaren 750. urteurrenko ereserkia estreinatuko dute. Aipatutako himnoa Enrike Ugarte musikari eta moldatzaileak konposatu du. Karlos Linazasorok letra ipini diolarik. Abesti hau egiteko garaian, hiriarren tradizioaren ildo hartu nahi izan dute. «Himnoaren bihotzean den-denak nahi izan ditut sartu: gure herrira ilargia ekarri zuten arbasoak, auzoetako haize eta belazetan jostatu ziren umeak, betiko joan zitzaizkigun lagun minak...» azaldu zuen Linazasorok.

Ereserkiak gain *Tolosa maitea* izeneko kantua ere konposatu du Ugartek, kasu hone-

tan, abesti «intimo» bat egin du, berak Tolosarekiko sentitzen duen herrimina isladatzen duena. Honi berriz, Peio Zabala ipini dio letra, bertan, «Tolosaren gauzarik nabariena eta propioena» jasotzen saiatu delarik.

Ainhoa Arteta sopranoak aurkezpenean azaldu zuenaren arabera, «garbi» zuen, urteurren honetan bere herri-deekin egon nahi zuela, eta *Tolosa kantuan* izeneko ekitaldian parte hartzeko aukera izateak «ilusio» handia egin dio. Hala, biharko egun handizat izendatu zuen, «herriak abestu behar baitu». Bestetik, Jokin Bildarratz alkateak Orfeoiko kideek egindako «dan handia» nabarmendu nahi izan zuen bereziki, «tolosarrok harro egon behar genuke berrietaz, atzeko interes gabe

KONTZERTUAREN EGITARAUA ▶

22:30ean izango da kontzertua, Euskal Herria plazan.

'TOLOSA KANTUAN'

'Sanjoanen zortzikoa'. Tolosako Orfeoia.

'Bagare'. Tolosako Orfeoia.

'Eperra'. Tolosako Orfeoia.

'Tirikittrauki'. Tolosako Orfeoia eta Gorka Knörr.

'Aita-semeak'. Tolosako Orfeoia.

'Maite-maite'. Tolosako Orfeoia, Urko eta Enrike Ugartek.

'Furra-furra'. Tolosako Orfeoia.

'Oi ama Euskal Herria'. Tolosako Orfeoia.

'Itsasontzi baten'. Tolosako Orfeoia eta Enrike Ugarte.

'Lau teilatu'. Tolosako Orfeoia.

'Tolosa maitea'. Tolosako Orfeoia, Ainhoa Arteta eta Enrike Ugarte.

'Aurtxo seaska'. Tolosako Orfeoia eta Ainhoa Arteta.

750 ereserkia. Tolosako Orfeoia eta herritarrak.

jende asko baitago, hor atzekaldean, lanean ari dena».

Emanaldian bi abesti berri hauez gain, euskal tradizioko beste hainbat kantu ezagun ere entzun ahal izango dira, besteak beste, *Sanjoanen zortzikoa*, *Bagare*, *Eperra*, *Oi ama Eskual Herria*, *Lau teilatu*... Ekitaldia DVD batean grabatuko dute, herriaren historian legatu bat uzteko.

Ereserkia kantatzeko, 750 kuru abeslari ariko dira. Gainera, himnoaren interpretazioan politika, arte, musika, kirol, eta beste hainbat arlotako jende ospetsuak parte hartuko du, ereserkiari ahotsa eta irudia emanez. Bestalde, ekitaldian parte hartuko dute ere, Amaia Agirre eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak. Era berean, Tolosako Orfeoioek parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete, Tolosa eta Tolosaldeko herritari, ikastetxei,...

GIZARTEA ▶

Azpeitira txango bat antolatu du Ereitek

Igandean, 'Murgilduz' programaren barruan, Antzinako Tren Museora joango dira

E. EZEIZA

Ereitek, Tolosaldeko Elkarte Kulturantzak, *Murgilduz* programaren barruan, hainbat txango antolatu ditu. Bidaia hauetan edozeinek har dezake parte, baina batez ere, etorkinei zuzendutako egitasmoa da. Hala, Euskal Herriko txokoak ezagutu ahal izango dituzte, egun, hemen elkarbizi diren, baina kultura eta jatorri ezberdinetakoak diren pertsonak.

Lehenengo irteera etzi egingo dute; 10:00etan abiatuko dira Santa Klara komentutik, Azpeitiko Antzinako Tren Museoa bisitatzeko. Lehenengo, museoa zehar bisita gidatua egingo dute, eta ondoren, trenbide zaharretik bidaia bat egiteko aukera izango dute. Jarraian, atsedenaldia egingo dute, eta bakoi-tzak herria ezagutu ahal izango du. Hemendik, Loiolara joango dira bazkaltera, eta bazkalostean santutegia ezagutzeko aukera izango dute. Bazkide direnek bi euro ordaindu beharko ditu, eta gainontzekoek, lau. Hala ere, txangoen egutegia osotara zehazteko dago, eta aldatetaren bat eman liteke.

Egitasmo honekin, Ereite elkarteak kultura ezberdineko herrialdeen harremana indartu nahi du. Aldi berean, bilatu nahi dutena zera da: jatorriz euskaldunak direnek, egun, hemen bizi diren etorkinekin bidaiatuz, beraien Euskal Herriarekiko ezagutza eta ikuskera ere aberastea.

HIGIEZINEN AGENTZIA

BASABI

Pablo Gorosabel, 40 • 1. pisua - 7. bulegoa • 20400 TOLOSA
Tel./Faxa: 943 65 55 87 • Sakelakoa: 669 368 994

Zorionak Tolosa!

HIGIEZINEN GESTIO AGENTZIA

Ernio

San Frantzisko etorb. 47- behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37 • Faxa: 943 65 09 44
Posta Elektronikoa: ernio@inmoernio.com
e-maila: www.inmoernio.com

Zorionak Tolosa!

ARAMBURU
HIGIEZINEN AGENTZIA

www.aramburu.net

Nafarroa Etorbidea, 10
20400 TOLOSA

943 65 17 13
677 46 09 16

Zorionak Tolosa!

KULTURA ▶

Urteurreneko egitarauak gaur eta bihar izango du jarraipena, ekitaldi ugarirekin

Gaur Berri Txarrak eta Kepa Junkera eta bihar, Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa, Erraldoien bilkura, Oskorri eta 'Tolosa Kantuan' izango dira, besteak beste

INIGO TERRADILLOS

Tolosaren urteurrenaren egun handia igaro da, baina oraindik ere hainbat ekitaldiz gozatzeko beta izango da; izan ere, antolatzailerak jakitun ziren laneguna zela urteurrenekoa, eta «horregatik gaur eta bihar jarraituko du egitarauak, gustu guztiak asetzeko moduko proposamenekin». Hala, gaurkoan, estilo desberdinetako kontzertuek hartuko badute protagonismoa, biharkoan, egun osoan zehar askotariko ekitaldiak izango dira, Graffiti Lehiaketa eta *Tolosa Kantuan* kontzertua azpimarratu behar direlarik. Aipatu, Tolosako dende modu berezian parte hartuko dutela, 750. urteurrenarekin lotutako apaingarriez beteko baitituzte erakusleihoak eta poltsa bereziak banatuko baitituzte, besteak beste. Era berean, jatetxeek eta tabernekek etiketa berezia duen 750eko ardo eskainiko dute. Hauek dira gaurko eta biharko antolatutako dituztenak:

GAUR

Manantial Folk. La Jara elkar-teak antolatuta, 20:00etan hasiko da emanaldia, Lopez Mendizabal Plazan.

Kepa Junkera. 22:30ean, musikari bizkaitarrak *Hiri* izeneko bere azken diskoa aurkeztuko du Leidor Aretoan.

Berri Txarrak. 23:30etik aurrera, Nafarroako musika taldeak Europar zehar eginiko bira amaituko du Triangulo Plazan eskainiko duen kontzertuarekin.



Tolosako buruhandi eta erraldoien konpartsa egun osoan zehar ibiliko da kaleiran. NOELIA LATABURU

BIHAR

Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketa. Egun osoan zehar izango da lehiaketaren finala, eta graffiti munduarekin lotutako hainbat tailerrez eta musika gozatzeko parada izango da. Lopez Mendizabal pasealekuan, esaterako, capoeira erakustaldia eskainiko du Sentzala-Euskadi taldeak 20:00etan eta Ortophonk taldearen kontzertua, berriz, 20:45ean izango da. Graffiti lehiaketako finalistek (Garikoitz Arregi berri-zarra; Gorka Gonzalez Ermuakoa; Eva Mena eta Asier Lopez bilbotarrak; Maider Celaya Arrigorriakoa; Imanol Aiz-

purua, beasaindarra; Iñaki Herrero heraniarra; Iñaki Uriarte Arrasatekoa; Egoitz Konte, Xabier Sagasta, Jorge Martin, Davir Celaya, Yosu Izarra, Ander Garrosa eta Javier Agirre gasteiztarrek) beren ideiak irudikatuko dituzte herri osoan zehar banatutako hormetan, eta Frontoiaren albo batean mural bat egingo dute.

Erraldoiak eta buruhandiak. Kalejiran aterako dira egun osoan zehar. Eskopetariaren konpainiak ere kalera irtegan dira eta herri-bazkari batez gozatzeko dute.

Oskorri eta Kukubiltxo. Gazte-
txoekek ederki pasatzeko aukera

izango dute 17:00etatik aurrera Leidorren, Oskorri musika taldeak eta Kukubiltxo antzerki taldeak eskainiko duten *Doktor Do Re Mi eta benedizebra* lanarekin.

Su artifizialak. 21:30ean izango dira ikusgai Zumardi Txikian, Caballer pirotekniaren eskutik.

'Tolosa Kantuan' kontzertua. 22:30ean, Euskal Herria plazan izango da emanaldi berezia. Tolosako Orfeoia eta Concerto Orkestra ariko dira, eta Ainhoa Arteta soprano tolosarrak, Gorka Knörr eta Urko bakarariak hartuko dute parte, besteak beste. Bestalde, hainbat herriarrek, lehenengo aldiz, Karlos Linazasorok idatzi eta Enrique Ugartek sortutako Tolosako ereserkia kantatuko dute.

Gau animazioa. Tolosako kaleetan zehar egingo den ekimenarekin amaituko da eguna.

Trafiko neurriak

Gaurko eta biharko hainbat ekitaldi daude antolatuta, eta horiek direla eta, trafiko neurri bereziak hartu dituzte, ezin izango delarik herriko kale batzuetatik igaro, ez eta zonalde batzuetan aparkatu ere.

Herenegun bezala, bihar ere, su-festa izango da 21:30etik aurrera. Ondorioz, Santa Klarako zonaldean, debekatuta egongo da egun horretan, ondorengo lekue-tan aparkatzea: 08:00etan hasi, eta dena ondo garbitu arte, alegia, igandera arte (hilak 17) ezingo da Zumardi Txikian eta autobusen aparkalekuan utzi autoa. Era berean, debekatuta dago aparkatzea ibaiaren eskubi aldeko —bialeko— lehen zatian eta Izaskungo aldean, autobia azpiko pasabideraino.

Su-festak irauten duen bitartean, trafikoarentzat itxita egongo dira, larrialdietako-entzat izan ezik, Santa Klara kalea, Zubiberria eta Zumalakarregi kalea. Su artifizialak ikusi behar dituztenei gomendatzen zaie ondorengo lekue-tan jartzea: Zubiberrian, Zumalakarregi kalean —planetarioa dagoen lekura— eta Aranburu jauregiko terrazan. Era berean, gogorazten dute derrigorrezkoa dela segurtasun-eremua errespetatzea, eta segurtasuneko arduradunek emandako jarraibideak betetzea. Eremu hori hesituta egongo da, eta Udaltzaingoa eta Babes Zibilekoek kontrolatuko dute.

Bestalde, Udaletik jakinarazi dutenez, gaur eta bihar, mugatuta egongo da ibilgai-luen zirkulazioa Pablo Gorosabel kalean. Halaber, Triangulo plazan, gaur, 23:00etatik aurrera izango den Berri Txarrak taldearen kontzertua dela eta, Pablo Gorosabel kalea itxita egongo da trafikoarentzat.

Bihar ere, beste horrenbeste gertatuko da; izan ere, 19:00etatik aurrera, Erraldoien konpartsa kalejira egingo du, beraz, Pablo Gorosabel kaletik ezin izango dira autoak igaro.

iragarki laburrak ▶

SALGAI Egurra. Tximenetako zatituta dagoen pago enbor lehorra salgai. 646 53 71 15. Txakurkumeak. Setter Ingles (leveling) arrazako txakurkumeak. Txertatuak. Gurasoak oilgorretan trebeak. 647 14 40 70. Argazki kamera. Nikon D50 reflex digitala, 18-50 eta 50-200 objektiboak, 1 gbeko txartela eta poltsarekin. Egoera onean.	Deitu 600 26 00 85 telefono zenbakira. LANA Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91. Ile-apaintzailea. Ile-apaintzailea behar da Tolosan, esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gizarte aseguratua. 625 70 50 59.
--	--

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Hau da iritzia eman dezuzten proposatzen dizugun gaia: «Oporraldi luzean egindako gastuei aurre egin beharra, seme-alaben eskolako materiala eta arropak, ikastaroetako matrikulak... Nola eginen diozu aurre irailako aldapari?»

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritzan, Udalebbeetan eta Erakunde	Publikoetan. 943313782. Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.
---	--

VILLABONA ▶ ERREBOTEA

Goi mailako errebote partida ikusgai, bihar

Behar-Zanak lehen Errebote Eguna antolatu du kirol zahar hau suspertzeko eta zaletasuna zabaltzeko asmoz

IMANOL GARCIA

Villabonako Behar-Zana elkar-teak lehenengo Errebote Eguna antolatu du biharko. Hego Euskal Herrian, Villabonan eta Zubietan bakarrik jokatzeko da kirol zahar hau eta beraz suspertzeko asmoa dute elkartekoek. Andoni Egiño Behar-Zana kirola ataleko arduradunak azaldu duenez, «aspaldidanik erreboteko afizionatu batzuk partida on bat ekartzea nahi zuten, herritarrak ohar-tzeko kirol honen bereizgarritasunaz».

Maila handiko errebote partida ikusteko aukera izango dute, beraz, Villabonako plazara joaten direnek. Horixe izango da eguneko ekitaldirik garrantzitsuena eta errebotearen zaletasuna zabaltzea du helburu. Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazte eta Uztaritzeko Kapitxo Harri taldeek elkarrekin jokatu dute. Frantziako Txa-



Botiloaren eskultura. I. GARCIA

pelketako finalaren errepikapena izango da, hau da, egun errebotean aritzen diren bi talde onenatarikoak. Luzeaz Gazte irabazi zuen 13-12 eta Uztaritzekoak errebantxa hartzeko

gogoarekin izango dira. 11:00etan hasiko da partida. Ez da sarrerarik ordaindu beharrik izango eta ikusleei borondatea eskatuko zaie.

Partidaren aurretik, 10:00etan, burdinezko zubiaren ondoko biribilgunean jarri berri duten botiloaren eskultura inauguratuko dute. Musikak ere bere tarte izango du; Donostiako Gaztelubide elkarteko Orfeon de la Castaña taldeak emanaldiak eskainiko ditu partidaren ondoren herrian zehar eta elkartean egingo den bazkariaren ondoren. Hain zuzen, bazkaria 14:30ean izango da eta bazkide ez direnek ere parte har dezakete. Izen-ematea elkartean bertan egin behar da eta 30 euro ordaindu behar dituzte interesatuek.

Villabonako eta Zizurkilgo Udalek eta inguruko hainbat enpresek laguntza eman diote Behar-Zanari lehenengo Errebote Eguna antolatzeko.

GUTUN@K ▶

Etorkizuneko alkizar gazteei

Igaro dira aurten ere herriko jaiak ezin giro ederragoan eta balantzeak egiteko garaian (balantzak egin ditugu jaietan eta), zuengana gatoz hain gaztetxo ez garenok esker onez.

Jaien aurretik lanerako eta gainontzekoetarako parte-hartze zuzena eskatu zitzaizuen, eta harrিতuta utzi gaituzue zeinen fin eta serio egin duzuen betebeharrak. Barrikotean laguntzen, herri kirol eta asto karreraren parte hartzen eta batik bat eta denen gaitetik txosnaren ardura osoan. Gainera ideia berriei etorri zarete (gau jolas arrakasta-

tsuekin). Gauza bat, listoia oso goian jarri duzuela.

Ba lerro hauen bidez hartzazue gure zorianik beroena eta ia hurrengo urtean ere halaxe jarraitzen duzuen. Guk (lehenengo pausoak halaxe eman genituen) zuekin kontatzen dugu eta hor izango gaituzue ondoan, laguntzeko eta nola ez elkarrekin festa egiteko.

Besterik gabe, gora Alkizaro jaiak!! Gora Alkizaro gazterria!! Eta ia igandean Ernioen elkartzen garen. Bejondaizuela!!

MANU URRUZOLA, AITOR SORARRAIN, XABIER GABIRONDO, UNAI SORARRAIN, JON ROTETA, AITZIBER URRUZOLA ETA JOSUNE GABIRONDO (HAIN GAZTETXO EZ GAREN DENON IZENEAN) ▶ ALKIZA

ASTEASU ▶ AZOKA EGUNA

Perretxiku lehiaketa, berritasunetako bat

Mikologia erakusketa eta Ardi txakur Lehiaketa ere, etziko Azoka Egunean

ERREDAKZIOA

Berritasunekin dator etzi egingo den aurtengo Asteasu-ko Azoka Eguna, perretxikuekin lotutako bi ekitaldi eta Ardi txakur Lehiaketa, hain zuzen. Azken hau 18:00etan egingo dute. Perretxikuei buruzko ekitaldiak bat saski ederrenaren lehiaketa izango da. Bestea, mikologia erakusketa, 100 espezie ezberdinekin, behar bezala identifikatu eta sailkatuak Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaz osaturikoa.

Perretxiku Saski Lehiaketa-ri dagokionez, 13:00etarako jangarriak diren perretxiku otarra auzeratu behar dute lehiakideek plazan. Lehiaketa irabazten duen otarra enkantean aterako dute. Antolakuntzak animatu nahi ditu perre-



Artisau postu bat, iaz. i.g.

txiko zale guztiak parte hartzea.

Berritasunetaz gain, ohiko ekitaldiak ere izango dira: 100 ganadu-buru erakutsiko dituzte, artisautza eta elikagaiak postuak ere egongo dira, baserriko produktuak, zanpazarrak... Egun ederra pasatzeko aukera, beraz, Asteasura joaten denarentzat.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Isasti mendira ibilaldia egingo dute gaur AHTren aurkako gizarte eragileek

ERREDAKZIOA

AHTren aurkako ekitaldiak burutuko dituzte asteburu honean Anoetako gizarte eragileek. Isasti mendian egiteko den zaborteziari buruzko informazioa ematea da ekitaldien helburuetako bat. Hain zuzen, gaur arratsaldean egin-

go dute herriko plazatik mar-txa Isasti mendiraino, eta AHTren lanengatik eraikiko litzatekeen zaborteziak zer suposatu duen azalduko dute ekimenaren bultzatzaileek.

AHT Gelditu! Elkarlanak, Anoetarrok Auzolanean herri plataformak, Anoetako Gazte Asanbladak eta SEGik parte

hartzera deitzen diete herritarrei. 17:30ean abiatuko dira plazatik eta 21:00ak aldera afari-merienda egingo dute. Horren ondoren, kafe tertulia egingo dute. Bestalde, gaur izango da azken eguna biharko paelladarako txartelak erosteko; 10 eurotan eskuratuko daitezke Itzuli tabernan.

LIBURUDENDA PAPERDENDA

M AIMUR

Prensa-Liburuak
Faxa-Fotokopiak
Zerbitzu berria: Mota guztietako dokumentuen artisau enkuadernaketa

Tel./Faxa: 948 51 01 46 • Elbarren, 17 • LEITZA

jantzi hitza ren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai

ERROMERIA LEGAZPIN!

Irailaren 17an, igandea, Lakiolamendin, 12:30etik aurrera

- Baso-lanen erakusketa, apustua, bertsolariak, jokoak eta erromeria bikaina Elustondo anai-errekin!
- Autobusa, bazkaria eta taberna,
- Euskarazko webgune berri baten alde.

Anima zaitetz!

Tolosaldeko zerbitzu enpresa batek

20eta 35 urte arteko langilea behar du.

Beharrezkoa gidatzeko baimena.

Deitu 13:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 19:00etara

943 67 98 98

IBARRA ▶ KIROLA

MADDI SOROA

Atzo arratsaldean herri kirolez gozatzeko aukera izan zuten Ibarako gaztetxoek. Ekitaldia plazan egitea aurreikusia bazegoen ere, eguraldi txarraren ondorioz, Belabietan kiroldegira pasatu zen saioa. Ibarako Udalean lanean diharduen Nura gizarte elkartearen izan zen ekitaldiaren antolatzailerak. Aipatu, elkarte honek heziketaren inguruan diharduela lanean, helburu nagusia Ibarako gazteen arteko komunikazio harremana zabaldu eta elkarbizitza arintzea delarik.

Eguraldi txarraren ondorioz uste baina jende gutxiago elkartu zela adierazi dute antolatzailerak; elkartu zirenek, ordea, «ikaragarri ondo» pasa zutela baieztatu dute, baita ekitaldia burutzeko zuten helburua bete zela adierazi ere, Ibarako gazteei Estitxu Arnaiz eta Aritz Rodriguez —Nura elkartearen kideak— ezagutzera ematea, alegia. Aurrerantzean ekitaldi gehiago burutuko dituzte.

Kale hezitzaileen eskutik, herri kirolak

Haurrentzako herri kirolak izan ziren atzokoan Belabietan



Lokotx-bilketa, soka tira eta txinga probetan jolastuz ondo pasatzeko aukera izan zuten gaztetxoek. M. SOROA

BERROBI ▶

Sukaldaritza ikastaroan azken izen-ematea

Gaur da azken eguna euskaraz egingo den sukaldaritza talde aurreratuan izena emateko. Sukaldean ikasteko ikastaroa urriaren 24tik abenduaren 12ra izango da, asteartetan 17:00etatik 19:00etara. Aipatu, guztira hamasei orduko ikastaroa izango dela. Ordaindu beharreko kopurua, berriz, 43 eurokoa izango da. Udalak eta Kutxak antolaturiko ikastaro honen amaieran, Udalak ikastaroaren prezioaren %20a itzuliko die Berrobiko herritarrei.

ANOETA ▶

Bizikleta txekeoak egingo dira gaur plazan

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan bizikleta txekeoa izango da, gaur, 18:00etan, herriko plazan Oria Txirrindulari Eskolarekin. Mugikortasun Iraunkorraren astea, irailaren 16an hasi eta 22ra arte izango da. Horregatik hainbat ekintza ezberdin antolatu dira. Bihar Erniopeko Txirrindulari Bira izango da, horretarako, hamarretan elkartuko dira parte-hartzaileak ikastolan. Bueltan, hamaiketako egongo da Iruran. Bestalde, datorren ostiralean, kotxerik gabeko eguna ospatuko dela eta, 08:45ean geldituko dira gaztetxoak, eskolara oinez edo txirrindaz joateko. Egun berean, txirrindularitzari buruzko tailerra izango da ikastolan bertan DBHko ikasleentzat. Tailerra 11:15etik 13:15era burutuko da eta Joseba Agirrezabalak zuzenduko du. Tailerra, *Arrisku egoerak ekiditeko aholku praktikoak* lelopean izango da.

ALEGIA ▶ JAIAK

Kalebeheran, gaztetxoek antolatutako jaiak, gaur

Auzoko parkean izango dira ekitaldi ia guztiak, lehengo urteko emaitza eta giro ona ikusirik

NEREA URBIZU

Iaz bezala, aurten ere Alegiako Kalebehera auzoko jaiak antolatu dituzte gazteek. Herriaren sarreran dagoen parkearen inguruan egingo dira ekitaldi guztiak.

Jaiak 19:00etan hasiko dira gaur, buruhandiekin eta txistulariekin batera. Patata Tortilla Lehiaketak garrantzia izango du, eta parte-hartzaile asko elkartzea espero dute. Kirola gustuko dutenek ere izango dute ganbarako bazterrean utzitako pala hartu eta txapelketan lehiatzeko aukera. Beraz, ondo pasatzeko ekitaldirik badago. Gonbita egina dago.

EGITARAUA ▶

GAUR

19:00. Txistulari, buruhandi eta ebfuegoak. Patata Tortilla Lehiaketa ordu berean.
21:00. Zahagi ardoa. Gero, Eugenio ta Aitziber trikitilariak.

LARUNBATA

12:30. Ume eta helduen krosa.
16:00. Ume jolasak eta txokolatada.
16:00. Pala txapelketa.
21:00. Zahagi ardoa.
23:00. Bertsotan: Ibai Esoain, Xabier Sukia eta Gorka Tolosa.

Ondoren. Trikitilariak.

02:00. Zaku-karrera.
Gauean zehar. Txirrisklas.

IGANDEA

12:15. Herriko dantxariak.
12:30. Txakolin dastaketa sardina errekin.
14:30. Herri bazkaria.
Ondoren. Toka txapelketa.
17:00. Umeen arteko pilota partidak.
Ondoren. Pala txapelketako finala.
21:00. Zahagi ardoa.
Ondoren. Mus txapelketa.



Dantzariak Kalebeherako jaietan egingo dute saioa. O. ESKITXABEL



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

MUSIKA ▶

Tolosaren 750. urteurrenari musika jartzeko, Euskal Herriko puntako taldeak eta musikariak daude gaur gonbidatuta: alde batetik, Europako bira bukatu berri duen Berri Txarrak, eta bestetik, euskal folklorea beste estiloeekin nahasteko era berezia duen Kepa Junkera trikitilaria

GORKA URBIZU ▶ BERRI TXARRAK TALDEKO KIDEA

«Hemen beti ongi tratatu gaituzte»

Musikari nafarra gaur iritsi da Euskal Herrira, Europako bira atzean utzita

NEREA URBIZU

Gaur joko du Berri Txarrak taldeak Triangulo plazan. Talde nafarrak Europako bira bukatu berri du, eta Euskal Herriko lehen kontzertua Tolosan egingo du. Gorka Urbizu (Lekunberri, 1977), taldeko abeslaria aritu da biraren berri ematen.

Europako bira atzo bukatu zenuen, Rise Against-ekin...

Hasieratik izan gara Rise Againsten zaleak, horregatik eskatu genion Tim McIlrath abeslariari *Libre* © diskoan kolaboratu zezan. Berari gure lana gustatu eta halaxe sortu zen harremana. Orduetik kontak-tuan jarraitu dugu eta hori hezuramaitu egin da nolabait, biran eurekin jotzeko gonbita luzatu digutenean.

Zer moduzkoak dira?

Tim-ekin kontaktuan izan gara beti, eta oso pertsona adeitsua

da, beti gure lanaz interesatu da, eta Euskal Herriko kulturaren zaletu izan da orduetik. Bira are hobea izan da, Rise Against, A Wilhelm Scream eta lan talde guztiarekin oso giro ona izan dugu.

Zer nolako harrera izan du zue oraingoan?

Azken 4 hilabeteetan hirugarren aldian da Europa aldera mugitzen garena, baina hau berezia izan da. Kontuan hartu behar da Rise Against oso talde ezaguna dela hemen: 1.000 eta 1.500 lagun ingururantzako aretoetan jo dugu, eta 13 kontzertuetan sarrera guztiak agortu dituzte. Beraz, jende askoren aurrean jo dugu, eta teknikoki kondizio ezin hobeeetan.

Gogoratze kontzertu bat.

Kontzertu gehienak izan dira bereziak. Batzuk aretoagatik, besteak benetan historikoak direlako (Berlingo So 36, Ams-

terdameko Melkweg...), baina Frankfurtetako, adibidez, oso ona izan zen, bai gure aldetik, bai eta publikoarekin sortu zen giroagatik. Biribiltzeko, Tim gurekin atera zen kolaboratzera.

Entzuleak berriak, zuek han berriak. Zer sentitu duzue?

Modu batean talde hasi berri baten jokabidea eta ilusioa sentitu dugu, publiko berria konbentzitu behar hori, eta abar, baina geure musikarekin daukagun konfidantza eta zuzenekoek emandako eskarmentua oso bestelakoak dira egun. Garai bakoitzak dauka bere xarma eta momentuan momentukoaz gozatzeko ikasi behar da.

Londresetik Triangulora.

Jaio. Musika. Hil bira erraldoiaren bukaera moduko bat bezala ikusten dugu. Berezia izango da publikoaren kon-

traste hori. Hemen beti ongi tratatu gaituzte, hor daude Ibarrrako gaztetxea edo Bonberenea. Lagunak ere baditugu Deabruaren edo Bide Ertzearen. **Hurrengo kontzertuak non?** Zuzenekoekin atsedean hartuko

dugu oraingoz. Une honetan, ongintzako bilduma lan baterako kantu bat idazten ari gara. Urriari Katalunian ariko gara errepresioaren aurkako jaialdi batean eta Gironako Festa Nagusian. Ondoren konposatzen hasiko gara, irrikitan gaude eta.

Zuen etorkizunari begira, noraino espero duzue iristea?

Auskalo. Gure gertuko lagun batek dioen bezala: «gelditzea hiltzea duk!» ◀



HITZA

ION GARMENDIA ▶ MUSIKARIA

«Zerbait berezkoa egitea da nire erronka»

Ofizio bihurturiko afizioan dihardu, lan eta lan, musikari ibartarrak

MADDI SOROA

Alde batetik bestera dabil Ion Garmendia ibartarra, joan eta etorri, etorri eta joan. Lan eta lan, deskantsurik hartu gabe. Gustura dabil hala ere, gustuko duenean lan egiten omen du eta. Kepa Junkerarekin dabil azken bi urte eta erdian, albonka, panderoa, txistua eta txalaparta joaz. Gaur, Leidor bertutuan izango da, 22:30ean, Kepa Junkerarekin kontzertua eskaintzen.

Zure ibilbide luzea, labur kontzertuak bai?

Txiki-txikitatik hasi nintzen txistua jotzen. Ondoren, apurka-apurka beste instrumentu batzuk jotzen hasi nintzen, albonka, txalaparta... Hala, Donostiako Musikene, Euskal Herriko goi mailako ikastegian ikasten aritu nintzen eta bertan Kepa Junkerarekin egin nuen topo.

Ea berarekin jo nahi nuen galdetu zidan eta nik baietz. Ibon Koteron albokariarekin ere jotzen dut, eta baita *Etxean* Euskal Herriko txalaparta konpainiarekin ere. Bestetik, Iñaki Plaza, txalaparta bikotearekin euskal instrumentuen inguruko saioak egiten nabil. Musika eskolak ere ematen ditut.

Eta balorazioa da...

Oso balorazio ona, positiboa. Horrelako maila duen talde batean jotzeko aukera edukitzea zorte handia da. Askotan zorte kontua izaten da.

Kepa Junkeraren 'Hiri' diskoarekin zabilta. Zer moduz?

Getxoko Folk jaialdian egin genuen diskoaren aurkezpena. Handik Kataluniara joan ginen eta bi emanaldi eskaini genituen. Gaurkoa, Euskal Herrian egiten dugun bigarren saioa izango da. Guretzako ez da berrietasuna, denbora asko baita-

ramagu diskoarekin lanean. Harrera ona izan duela uste dut. Hala ere goiz dela esango nuke, gutxi jo baitugu hemen.

Musikari asko zarete baina beti Kepa Junkeraren izena entzun eta ikusten da?

Lana guztiona da, hori garbi dago. Kepa Junkera da erreferentzia, baina, azkenean erak taldea behar du eta taldeak bera. Lana guztiona da.

Beti kanpoan ibilita, etxean jotzeko izango du berezitasunik, ezta?

Gaur jakingo dut hori, baina egia esan bai, Leidorren jotzeko gogoz nago. Zain nago ea jendeak zein erantzun ematen duen. Egia esan, Euskal Herrian nahiko hotza da publikoak, baina ikusiko da.

Gaur Tolosan, eta gero?

Bihar Arrasaten izango gara, Igandearen Iruñean eta gero Sevilla (Espainia), Italia eta be-

rriz Euskal Herrira. Gabonak bitarte bi asteburu soilik izango ditut libre.

Luzerako zaitugu musika lanetan, orduan?

Baietz dirudi. Jotzen, ikusi behar harko da zein mailatan; oraingo maila hau ondo dago, jende eta leku asko ezagutzen dituzu eta gauza positibo asko ditu, baina... Etorkizunerako, eritimoa jeistea beharrezkoa dela uste dut.

Airez nahiz eskuz. Beste tresnaren bat ikasteko gogorik?

Instrumentu asko joko nitzuke. Orain gaita daukat buruan, ongi jotzen ikasi nahi dut. Lagun batzuk gaita bat utzi didate eta hor nabil.

Etorkizuneko erronkarik?

Zerbait berezkoa egin nahiko nuke. Besteentzako jotzen ari zitea ongi dago, izena ematen dizulako, jendeak ezagutu egiten zaituelako. Baina, nirea den



MADDI SOROA

zerbait egin nahiko nuke. Oso zaila da, ordea, zerbait berria egitea eta funtzionatzea.

Nola ikusten duzu Euskal musika?

Zaila dago, geroz eta gutxiago jotzen da. Gauzak aldatu egin dira, jendea tabernara joaten da, diskoteketara, erromeriak galtzen ari dira.

Zer da musika zuretzat?

Bizitzeko modu bat. Ofizio bihurtzen den afizioa edo. ◀

GIZARTEA ▶

Liño Putzuk eskularen ikastaroak emanen ditu

«Jendeak lan hauetan ikastea nahi dugu eta ez dela zaila ikuste», diote elkarteek



Eho-ziri lanetan, bordaketan; emakumezkoak, gizonezkoak; ikasteko, nahi izatea aski, irudian ikus daitekeen eran. HITZA

J. ASTIBIA

Liño Putzu eho-ziri lanazaleen elkarteak eskulan desberdinen ikastaroak egiteko eskaintza egin du. «Adin mugarik gabe, jendeak eskulan hauek egiten ikastea nahi dugu; etorri eta ikuste, ez dela zaila; edozeinek ikas dezakeela», adierazi dute.

Elkarteko kideak ikasturte guztian zehar biltzen dira haur-eskolako eraikinean erabiltzen duten egoitzan. Eskulan desberdinak egiten eta ikasten aritzen dira; eta urtean behin lanen erakusketa egiten dute Kultur Astearen baitan. «Jendeari, lanak ikustean dituenen, asko gustatzen

zaizkio, baina zaila den irudipenarekin gelditzen da eta ez da hala», baieztatu dute behin eta berriz. «Norbaitek erakutsiz gero, edozeinek ikas dezake». Helburu horrekin, berriak dakitena erakusteko prest daude, doan.

Hala, «eho-ziri lanak, patchwork-a (ehun zatietan egindako oihalak), hardanger-a (bordaketa norvegiarra), bainika egiten» erakutsiko dute eta ikastaro horietan parte hartu nahi duenarentzat, izena emateko telefono zenbaki bat jarri dute eskuragarri: 676 52 52 82. Hilaren bukaerara arteko epea jarri dute. Ikastaroen ordutegiak, ondoren zehaztuko dituzte parte-hartzaileekin.

LEITZA ▶

Bihar du partida Aurrerak, Etxarri Aranatzan

Aurrera futbol taldeak bihar 18:00etan du partida; bigarren jardunaldian. Etxarri Aranatzan aurka jokatu du, Sakanako herri horretan egiten ere, eta beraz, denboraldiko aurreneko kanpoko partida dute zain leitzarrek. Partida «zail» modura sailkatutakoa izanen dute oraingo hau ere Arrizurieta ren mutilek, izan ere talde etxarriarra Lehentasunezko Mailatik orain jetsi berria da. Bitartean, Aurrerak oraindik ere hainbat jokalarirekin kontaktzerik ez du izanen, zigorrak direla kausa, eta ondorioz gazteen taldeko jokalaria beharrezko osagarri izanen ditu.

GIZARTEA ▶

Elkartasuneko sega jaialdirako txartelak salgai

Bihar, Oiarzunen, 18/98 azukiko epaituekiko eginen duten I. Elkartasun Eguneko sega jaialdirako txartelak Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat tabernetan ere salgai daudela jakinarazi dute ekitaldiaren antolakuntzatik. Hala, Tolosako Raku tabernan eta Leitzako Musunzar eta Torreja tabernetan eros daitezke, 10 euroren truke. Gogora ekarriz, Almitza segalarien elkartearen eskutik, 18:00etan hasita, Oiarzungo Pikoketan, sei segalari eta euren lan-taldeak ariko dira apustuan, binaka jarrita: Gokoetxea-Kanflanka, Aranalde-Goioga eta Alkorta-Zurriarain.

LEITZA ▶ PILOTA

Finalerdietan partidak zailduz doaz

Asteburu honetan erabakiko dituzte pilota txapelketako finalisten izenak

JAIONE ASTIBIA

Gaur ekinen diete berriz ere Leitzako Pilota Txapelketako partidei, Amazabal pilotalekuan, helduenekin; jaialdiko azken partidari, gainera, seniorretan, Mikel Olazabal aresorrrak jokatu du, Aurrera pilota eskolako ordezkaria betez; eta aurrenekoan, kadeteen mailan, Haritz Sagastibeltza leitzarrek.

Hala, gaurtik hasi eta hiru egun hauetan, finalerako txartelaren bila ariko dira maila desberdinetako pilotari guztiak; hilaren 24ean jokatu nahi ditu Aurrerak finalak. Antolazaleek esan dutenez, «ordurako ETBkoak etortzeko hizketatzen ari gara».

Bestalde, jardunaldi honetan, zenbait pilotariren aldeak izanen dira txapelketan. Seniorretan, lehengo partidari Olaetxeak «eskuak erabat minduta» bukatu zuenez, haren ordekoa Uitziz izanen da. Jubeniletan, berriz, Azpirik iazko txapeladuna izandako Urrutia izan zuen bikote, eta Ibarra orain sartuko da txapelketan, Iturrioren bikote modura, Larrinagaren orde. Eta kadetetan Oihan Alduntzain leitzarra, Olalde lagun zuela, sailkatu bazen ere, dantzaria ere bada eta jakina da horiek Txekiara joanak di-

rela. «Ezkarako Gorkari deitu diogu, baina bezpera arte ez dugu jakin erortzerik izanen duen; pilotari guztiak aldi berean hainbat txapelketetan jokatzen ari baitira, eta zail samarra izaten da, egun libreak bat eginaraztea».

Aldaketak

Gaztetxoetan, berriz, aldaketa bakarra dago; hain zuzen ere, biharko aurreneko partidari, benjaminen artekoan. Partida hau, gainera, «berezia» izanen dela baieztatu du Aurrerak. «Aurreko koadroetan bi herritarren arteko lehia izanen delako, Gil eta Sagastibeltza, eta atzean, aldiz, maila horretan, Espinal orain arte Leitzara etorri den hoberearen, eta Iribarria Euskal Herriko hoberearen artekoa».

Edonola ere, pilotariak «maila oso ona» erakusten ari direla ikusi dute orain arte, «oso partida lehiakorrek» suertatzen ari baitira. «Eta orain, finalerakoetan, gogorragoak» izanen direla uste dute antolazaleek. «Oso partida politik izaten dira ttikienetatik hasi eta handienetaraino». Hala, pilotazaleei etortzeko gonbidapena egiteko baliatu dute aukera, «seguru gaudelako ongi pasako dutela».

LEITZAKO II. PILOTA TXAPELKETA ▶

2. JARDUNALDIA

Benjaminak. Sagastibeltza Lasarte-Larunbe 18 / Espelosin-Santxez 5; Salegi-Nobal 18 / Aburuza-Kasa 9.
Alebinak. Iparragirre-Jaka 18 / Maiza II-Joldi 6; Erostarbe-Apeztegia 18 / Gil-Lasa 16.
Infantilak. Iraizoz-Iraola 18 / Olias-Tainta 10; Idoate-Jaunarena 18 / Juaristi-Galartza 8.
Kadeteak. Galartza-Gartzia 22 / Ansotegi-Zelaieta 13; Alduntzin-Olalde 22 / Kortabarria-Zabaleta 21.
Jubenilak. Eskudero-Nuñez 22 / Iturri-Landaburu 7; Andreu-Nubla 22 / Lansalot-Iragi 11.
Seniorrak. Olaetxea-Irurera 22 / Gonzalez-Jauregi 19; Larrañaga-Baez 22 / Erroizenea-Landiribar 11.

FINALERDIAK

Gaur, 19:30. Kadeteak: Sagastibeltza-Perosanz / Epelde-Lana. Jubenilak: Iturrioz-Ibarra / Azpiri-Urrutia. Seniorrak: Olazabal-Mitxelena / Urrutia-Laza.
Bihar, 09:30. Benjaminak: Gil-Espinal / Sagastibeltza Egues-Iribarria; Sagastibeltza Lasarte-Larunbe / Salegi-Nobal. Alebinak: Untxalo-Bernabe / Agirre-Mendinueta; Iparragirre-Jaka / Erostarbe-Apeztegia. Infantilak: Arrieta-Arritxabaleta / Iraola-Gallurralde; Iraizoz-Iraola / Idoate-Jaunarena.
Etzi, 09:30. Kadeteak: Galartza-Gartzi / Alduntzinen ordekoa-Olalde. Jubenilak: Eskudero-Nuñez / Andreu-Nubla. Seniorrak: Uitziz-Irurera / Larrañaga-Baez.

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

HITZA banatzeko jendea behar da Tolosaldean Tolosa, Ibarra, Villabona, Irura, Anoeta, Zizurkil eta Leitzarako.

LEHEN BAIT LEHEN

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 09:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara 943 30 35 33

Inmoeki

Salgai (Tolosa) La Estrella. 92m2. Egongela, 3 logela, sukalde eta bainugela ekipatuak. Garaieja aukeran.
Salgai (Tolosa) Korreo kalean 75m2. Diseinuz eraberritua. Igogailuarekin.
Salgai (Ibarra) Ibarra 90m2. Eraberritua estreinatzeko.
Salgai (Ataun) 60m2-ko bi pisu eraberritu estreinatzeko.
Salgai (Legorreta) Baserri eraberritua, saritzeko prest. 2 solairu 120m2-koak. Eguzkitsua eta bistekin.
Salgai (Albiztur) Baserria 180m2-ko bi solairuarekin. Eguzkitsua eta bistekin.
Salgai (Tolosa) K/Nagusian. 50m2-ko lokala. Egokitua.
Salgai (Tolosa) lurre auzoan. 40m2-ko lokala. Ileaipaindegirako egokitua.
Alakatzeko (Tolosa) San Frantziskon. 56m2-ko lokal argitsua.
Alakatzeko (Tolosa) K/Nagusian 106m2-ko lokala.
943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Odol-ematea, 18:30etik 20:30era, balio anitzeko gelan.

Anoeta. Isasten zabortegia ez egitea eskatzeko ekitaldiak: 17:30ean, ekintza informatiboa: mendi marxta plazatik Isastira. Panel informatiboak jartzea.

21:00etan, afari-merienda estalpean; Ondoren, kafe tertulia. Gaia: AHTren aurkako erresistentzia.

Alegia. Kalebheherako jaiak; egitaraua: 19:00etan, festa hasiera bistulari, buruhandi eta ekefuegoekin, eta Patata tortila Lehiaketa; 21:00etan, zahagi ardoa eta, ondoren, dantzaldia Eugenio eta Aitziber trikitilarien eskutik.

ERAKUSKETAK

Alegia. Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte. Bertan lortutako dirua, Kubara bideratuko dute.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

TELEBISTA

Txolarre irratia
(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Euskal Herritik Holandara

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Beste bi argazki heldu dira HITZA Argazki Lehiaketara; biak ala biak, ederrak eta bereziak dira

'OBANOS' ▶

Eva Garmendia (Berastegi).

Eva Garmendia ez da urrutira joan udan eta Euskal Herrian bertan geratu da. Hala ere, gure lehiaketara argazkia bidali du eta oso polita, gainera. «Aurtengo Abuztuan ateratako argazkia da. Zoragarritzko paisaia iruditu zitzaidan, Obanos herrian aterata dago, Nafarroan», dio Evak.



'BIZIKLETAN PASEOA' ▶

Amaia Iraola Sanz (Tolosa).

«Holandara joan eta itsasoaren ondoan dituen bidegorri zabaletatik bizikletaz ibiltzea baino ezer hobegorik ez dago. Gainera argazki honetako paisaia Amsterdametik 2 kilometrotara dagoen toki batean dago eta lasaitasunaz gozatzeko ere aparta da», azaldu du Amaia Iraola tolosarrak gure lehiaketara bidali duen argazkiaren gainean.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Zorionak Anixeto. 82 urte beteko ditu. Etxeko eta Migelen partetik.



URTE ASKOAN
Julen Bengoa Izagirre. Dagoeneko 6 urte! Zorionak morrosko!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

hitza
argazki
lehiaketa

bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leizako HITZAren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info



Sari nagusia

2. saria

ZOKETA APARTAK



Asteburua
Euskal
Herriko
landetxe batean

Plaza Etxeberri
jatetxean afaria



PARTE-HARTZAILERA ETA BOTOEMAILA

guztien artean HITZAren mobilak eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira